

citada Academia en el año 1971 hasta el 1974.—Junto con estos volúmenes escribió una carta en la que expresa profundos sentimientos de afecto y devoción filial hacia Su Santidad, así como una fervorosa adhesión a los fines del presente año jubilar.—Por todo ruego a Vuestra Excelencia, de no haber dificultad en contrario por su parte, que haga llegar en la forma y el modo que más oportuno le parezca, al R. P. Villasante, el agradecimiento del Santo Padre por su obsequio y delicados sentimientos, haciendo sinceros votos por su trabajo y actividades culturales, comunicándole juntamente la paternal Bendición Apostólica, prenda de la asistencia divina para él y sus colaboradores.—De Vuestra Excelencia Reverendísima afectísimo en el Señor. Luigi Dadaglio N. A.—Excmo. y Rvdmo. Señor Don Antonio Añoveros Obispo de Bilbao.”

## **KARMELO ETXEGARAIREN MENDE ERDIA (1925-1975)**

### **EUSKALTZAINBURUAREN HITZAK**

Jaun-andreak, agur!

Karmelo Etxegarai jaunaren izenak eta itzalak biltzen gaitu gaur hemen. Berrogei eta hamar urte betetzen dira aurtentzen hura hil zenetik. Berrogei eta hamar urte, eta zer urteak! Zer aldaketak eta gora-beherak ezagutu dituen bitartean gure herriak! Bai. Etxegarairen izena urrutitxo gelditzen hasia zaigu. Eta halarik ere gutxi bezala eskeini dio D. Karmelok bere bizia eta bere lan guztia gure herriari. Hargatik zin ahaztuzkoa da guretzat. Langile fina, umila, isila, etengabekoa, nekaezina, gizon prestu zuzena, kristau fede handikoa.

Euskera bai olerkiz eta bai hitz lauz ere landu zuen. Euskal literaturaren kondaira-azterketa zehatz eta baliotsuak egin zituen.

Askotan argitaratze berri bat egiten denean edo autore gazte batek bere lehen frutuaz kalera irteteko ausartzia hartzen duenean, halakoarentzat ez da laguntza makala izaten lehendik fama duen jaun batek hitzaurrea egiten badio.

Honelako hitzaurre asko eskatu zizkioten D. Karmelori eta berak ez zuen sekula ukatuko. Hitzaldiak ere zenbat aldiz!

Baina Euskal-Herriko kondairaren azterketak egiten ipini zuen bere kemenik eta iraupenik handiena.

Euskaltzaindiko genuen D. Karmelo. Euskaltzaindiaren hasieran bertan laguntzaile izan zen izendatua (1919). Gero, berriz, 1923an, Luis de Eleizalde jaunaren hutsartea betetzeko, euskaltzain oso izendatua izan zen. Bere sarrera hitzaldia Mogeldarrei buruz egin zuen: Mogel abizena duten hiru euskal idazleei buruz, alegia. "Mogeldarrak eta euskera" (Ikus *Euskera* VII (1926), I z., 8-25). Egia esan, ez zuen beta handirik izan Euskaltzaindian lan egiteko, hautatu eta handik bi urtera hil bait zen. Euskaltzaindiak ez du bere lankide handi hau ahaztu. Bere urrezko ezteiak ospatu zituenean hari buruzko hitzaldi bat egin zuen Artetxe jaunak Euskaltzaindiaren aginduz, eta Euskaltzaindiaren aldizkarian agerturik dago (Ikus *Euskera*, 1971, 85-90).

Frantziskotarra naizen aldetik ere ezin ixil nezake hirugarrendar gartsua izan zela D. Karmelo, San Frantzisko zalea eta bai Arantzazu-zalea ere. Karmeloren seme Fernando hasi zen bere aitaren bibliografi osoa biltzen (Ikus B. A. P. 1950-1951; nik dakidala, ez zuen lan hori burutu). Hango tituluak irakurtzen badituzue, ikusiko duzue ez direla gutxi San Frantzisko, Arantzazu edo beste erlijio gai batzuk ukitzen dituztenak.

Eta azkenik, gernikar naizen aldetik ere ezin utz nezake aipatu gabe bere bizitzaren azken partea Gernikan eman zuela D. Karmelok. Hala ere, Gernika eta D. Karmelori buruz gauza gutti esan nezake, neroni ere gernikarra naizenarren. Bost urte nituen nik D. Karmelo hil zenean eta ia beti nere herritik kanpora bizi izan naiz. Baina gernikar jator bat dugu gaur hemen: José Antonio Arana Martija. Berak beteko du ondo baino hobeto nik ezin bete nezakeen huts hau.

Beraz, gaurko omenaldi edo oroigari hau bi hitzaldiz osatua egongo da. Hitzaldi bat Euskaltzaindiko Idazkaria den Juan San Martin jaunak egingo du. Eta bestea José Antonio Arana Martija jaunak.

Bukatzeko, eskerrak ematea beste lanik ez zait gelditzen. Eskerrak antolatzaileei eta omenaldi hontan modu batera nahiz bestera parte hartzen duzuen guztioi.